

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Guardiako landa bide eta zidorren erabilera, mantentzea eta hobetzea arautzen duen udal ordenantzari

Udalbatzak, 2020ko martxoaren 12ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Guardiako landa bide eta zidorren erabilera, mantentzea eta hobetzea arautzen duen udal ordenantzari.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean -2020ko maiatzaren 4ko ALHAOn, astelehena (49. zk.), argitaratu zen hari buruzko iragarkia- ez denez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onesten da ordenantza hori, eta indarrean dauden xedapenek arautzen dutena betez, osorik argitaratzen da haren testua:

GUARDIAKO LANDA BIDE ETA ZIDORREN ERABILERA, MANTENTZEA ETA HOBETZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

Zioen adierazpena

Guardiako udalerrriak garrantzi handiko landa bideen sare zabala du bere nekazaritza ekonomiarako, han lan egiten baitu biztanleen sektore garrantzitsu batek.

Udal honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan xedaturiko araugintza eta zehapen ahalak erabiliz, eta bat etorritik aipatutako Legearen 25-2 d) artikuluan eta Toki Erakundearen Ondasunen 1986ko ekainaren 13ko Erregelamenduaren 44. artikuluan eta hurrengoetan esleitzen zaizkion eskumenekin, ordenantza hau onetsi du, hau arautzeko: udal titulartasuneko landa bideak egoki eta zentzuz erabiltzea, eta haien osotasuna zaintzea eta defendatzea partikularrek egin ditzaketan usurpazioen aurrean, erabilera publikoa bermatzearen eta haien kontserbazio egokia ziurtatzearen bidez, hartu beharreko babes eta lehengoratzeko neurriak hartuta.

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

1. Ordenantza honen xedea da Guardiako landa bide eta zidorrak eta jabari publikoko pasabideak mantentzea, hobetzea eta haien erabilera arrazionala arautzea. Bide horiek ez daude Arabako Foru Aldundiko Landa Bideen Erregistroan sartuta, ezta Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erabilera, kontserbazio eta zaintzarako otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan araututa ere.

Hortaz, salbuespen dira katastroan udal titulartasun gisa agertzen ez diren eta Kode Zibilean xedatutakoaren arabera arautuko diren finka isolatuen ohiko zortasunak.

2. Ordenantza honetan jasotako xedapenak ez zaizkie aplikatuko Guardiako udalerritik igarotzen diren bideei, haien titulartasuna Arabako Foru Aldundiarena baita.

2. artikulua. Titulartasuna

1. Guardiako Udalari dagokio ordenantza honen xede diren landa bideen eta zidorren titulartasuna, hartakotzat joz katastroan agertzen diren guztiak eta otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauak arautzen ez dituenak.

2. Bide eta zidor horiek erabilera eta jabari publikoko ondasuntzat jotzen dira, eta, beraz, besterenezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak dira.

3. artikulua. Finantzaketa

Udal titulartasuneko landa bideen eta zidorren sareko jarduketak finantzatzeko, udalaren urteko aurrekontuetan horretarako sartzten diren esleipenak egingo dira, beste administrazio publiko batzuetatik eta udalerriko landa finken jabeetatik datozen baliabideen bidez, kasuan kasuko zerga ordenantzetan xedatutakoaren arabera.

4. artikulua. Proiektu teknikoak

1. Udal sareko bideak eta zidorrak hobetzeko eta egokitzeko proiektu teknikoak onesteak berekin ekarriko du haien onura publikoaren adierazpena eta ondasunak okupatu beharra eta eskuratu beharreko eskubideak eskuratu beharra, nahitaez desjabetzeko, aldi batez okupatzeko edo zortasunak ezartzeko edo aldatzeko.

2. Onura publikoaren adierazpena eta okupatzeko premia hauexei ere badagokie: proiektuaren zuinketan nahiz ondoren onets daitezkeen obra aldaketetan sartzten diren ondasun eta eskubideak.

3. Aurreko paragrafoetan adierazitako ondorioetarako, bide proiektuek eta haien aldaketek barnean hartu beharko dute haien trazaduraren definizioa eta zehaztea zein diren haien eraikuntza, defentsa edo zerbitzuetarako okupatu edo eskuratu beharrekotzat jotzen diren lur-sailak, eraikuntzak edo bestelako ondasun eta eskubideak.

5. artikulua. Desjabetzea

Bideak eraikitzeke beharrezkoak diren ondasunak eta eskubideak desjabetzeko eta, hala badagokio, zortasunak ezartzeko, indarrean dagoen Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legean ezarritakoa beteko da.

Bideen eta zidorren erabilera

6. artikulua. Erabilera komun orokorra eta beste alderdi batzuk

1. Guardiako landa bide eta zidorren erabilera komun orokorra askatasunez gauzatuko da, haien izaeraren arabera, bide eta zidor horien afektazioari eta haien erabilera publikora irekitzeari dagokienez, bai eta legeen, erregelamenduen, ordenantza honen eta gainerako xedapen orokorren arabera ere.

2. Guardiako landa bideen erabilera komunak ez du gaingaituko orduko 40 km-ko abiadura, eta bide horiek nekazaritzarako erabiltzen dituzten ibilgailuen edo makinaren pisua ez da gutxira 15.000/10.000 kg-tik gorakoa izango, salbu eta 12. artikuluko salbuespenetan jasotakoa gertatzen bada.

3. Ezin izango da inola ere bide(e) tan sartu nekazaritzako elementuekin edo makinekin maniobrak egiteko, eta jokabide hori zigorgarria izango da Zirkulazio Kodea arautzen duen araudiaren arabera.

4. Udalak garbitu eta mantenduko ditu bide nagusiak, kasuan kasuko aurrekontu partidaren kontura. Eta Foru Aldundiarekin lortutako akordioaren arabera.

5. Lurzatiaren jabeen kontura izango dira kalteen edo bigarren mailako bideen eta zidorren erabilera normalaren ondoriozko konponketak eragindako gastuak.

Azken kasu horretan, Udalak aurrekontu partidaren bat izaten badu, erabili beharreko zenbatekoa erabili ahal izango du lan horiek egiteko laguntzak emateko.

Bideen erabileraren muga orokorrak

7. artikulua. Finkarako sarbideak

Udalak finka pribatuetatik bideetarako sarbideak mugatu ahal izango ditu, eta arrazoi teknikoengatik sarbide horiek nahitaez non eraiki behar diren ezarri ahal izango du.

Finketarako sarbideek Udalaren alde zuzeneko baimena izan beharko dute, eta haiek eraikitzeko, mantentzeko eta ordezkatzeko gastu guztiak onuradunen kontura izango dira.

Finketara sartzeko, ura ezin izango da bidera iritsi.

Horretarako eraikiko diren pasabideek saneamendu hodiak izan beharko dituzte, gutxienez 50 cm-ko diametrokoak, eta haien altuera 20 cm-tik gorakoa izango da erdialdean, bidearen mailatik (finkaren eta bidearen artean), ura pasabideen muturretarantz hustu eta areketara joan dadin, eta gutxienez 6 metroko luzera izan beharko du.

Lurzati bat bere ibilgu naturalagatik urez bete eta aldameneko lurzatiaren edo lurzati bidez hustu behar bada, ubide bat sortu beharko da, alderdiek alde zuzeneko hala adostuta; ura bilketa gune bakar batetik isuri beharko da, ahal bada, eta jarduketa hori jasan behar duen aldameneko lurzatiari edo lurzatiei ahalik eta kalterik txikiena eragiteko ahalegina egin beharko da.

8. artikulua. Landaketak

1. Zuhaitz landaketa guztiak bidearen kanpoko ertzetik lau metrora egin beharko dira. Heskai biziak ezin izango dira kanpoko ertzetik bi metro baino gutxiagora landatu, Guardiako udaleko plan orokorrean ezarritako forma eta baldintzetan, eta bidearen ardatzetik bost metrora badaude.

2. Mahasti landaketak bidearen kanpoko ertzetik hiru metrora egin beharko dira, honako kasu hauetan izan ezik: finkaren eta bidearen artean ureztatze erretan bat dagoenean eta desnibela dela-eta bidetik sarbide bakarra duten finketan, kasu horietan bidearen kanpoko ertzetik bi metrora ere egin ahal izango dira.

3. Belar eta baratze laboreetan, hau da, zereal, erremolatxa, alpapa, patata, barazki edo antzekoetan, gutxienez 0,5 m utzi beharko dira bidearen kanpoko ertzetik laborera arte.

4. Makalen landaketetan, finkatik bidearen kanpoko ertzeraino lau metroko tartea gordeko da, baita bidearen eta finkaren artean ureztapena dagoenean ere.

9. artikulua. Atzeraemanguneak

1. Eraikuntzen, lur mugimenduen, hesien, alanbre hesien eta kartelen gutxienerako atzeraemanguneak Hiri Planeamendu Orokorrean eta indarrean dauden ordenantzetan onetsitako araudia beteko du.

2. Atzeraemanguneei eta hesien altuerari dagokienez, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean eta indarrean dauden ordenantzetan onetsitako araudia beteko da.

3. Lurzati itxiturak ez dituzte inoiz ur ibilgu naturalak etengo.

4. Gaur egun, finken eta bideen arteko edo bideen eta ureztatze ubideen arteko muga diren ezpondak ezin izango dira desegin edo ahuldu. Muga bidearen maila berean duten finketan, haren azpitik edo gainetik ezin izango da euste hormarik eraiki, ezta finka goratu edo beheratu ere, nahitaezko udal lizentziarik gabe.

10. artikulua. Baimenak

Finka partikularretarako sarbideak eraikitzeko, itxiturak egiteko eta bideen ondoko finketan lurra berdintzeko edo mugitzeko, udal honen berriarazko baimena beharko da. Eskaera egin eta proiektua aurkeztu beharko da, lortu beharreko lizentzia edo baimena lortzeko hori egin behar bada. Eta udal tasak ordaindu beharko dira.

Muga bidearen maila berean edo azpitik duten finketan, ezingo da euste hormarik eraiki, ezta finka goratu ere, Udalaren baimenik gabe.

Edozein eraikuntza mota egiten bada lortu beharreko autorizazioa edo baimena lortu gabe, edo, lortu arren, hirigintza araudia urratuz egiten bada, edo araudi honetan edo, hala badagokio, lizentzian bertan ezarritako arauak bete gabe, Udalak arduradunari eskatuko dio egoera hasierako egoerara itzultzeko, eta horri uko egiten badio edo ez badu egiten, ordezeko betearazte bidez egingo da, eta kostuak arduradunaren kontura izango dira; gainera, ezarri beharreko zehapenak ezarriko dira.

11. artikulua. Beste muga batzuk

Bideen mugakide diren finken jabe guztiek ezin izango dute inolako elementurik utzi beren jabetzen ondoko areketan (hondakin organikoak, hondakinak, sastrakak kentzeko materialak...), baldin eta haien garbitasun eta mantentze egoera alda badezakete. Bestela, han utzitako elementu horiek kendu egin beharko dira.

Betebehar hori bereziki beteko da udaberriko kimaketa, kimu berrien kimaketa, mahats bilketa eta beste lan batzuk egiten diren urteko aldietan, eta mugakide diren finken titularrak izango dira erantzuleak.

Lurzatien titularrek egiten dituzten garbiketa eta mantentze lan guztien berariazko bete-beharra izango da lurzatietatik eratorritako hondakin material guztiak birziklatzeko gaitutako birziklatze guneetan uztea, eta ezin izango dira finketan biltegitatu.

Era berean, mahasti bat erauzten denean, mahasti horren zati begetala lurzatiaren beraren barruan suntsituko da, erreta; puntu berde batera erretiratu beharko dira, birziklatzeko, mahasti horrek erantsita dituen elementuak, hala nola mahats parren zutoinak eta/edo alanbreak eta euste zutoinak eta/edo alanbreak. Betebehar horren aurkako jokabidea zehagarria da.

Erauzitako mahats orpoen ondoriozko gaixotasunak (ardagaia, bakterio sua eta beste batzuk) ez zabaltzeko, mahats orpoen hondarrak lurzatian bertan ezabatuko dira, suaren ondoriozko errekontzaren bidez, guztiz itzali arte. Betebehar hori ez betetzea bereziki larria izango da eta, ondorioz, zehatu ahal izango da.

Kontserbatu eta mantendu beharreko eremuak garbitzeko eta sastrakak kentzeko lanetan, Udalak erabiltzen dituen lan makinetan matxurak sortzen badira, haiek finkeen jabearen kontura izango dira.

Erabat debekatuta dago lurzatietara sartzeko guneetan, haietara sartzeko prestatutako bide, zidor edo pasabideen bitartez, edozein oztopo edo eragozpen jartzea, hala nola kateak, harriak, zirgak edo haietara sartzeko eragozten edo zailtzen duen beste edozein elementu. Jokabide hori zehagarria izango da.

Lurzati bat hesitzeko baimena edo autorizazioa eskatzen denean, alanbre argiztatua erabili beharko da, aplikatu beharreko xedapen guztiak betetz, bereziki Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren arauetara buruzkoak, ibai, erreka edo ureztarideen kasuan; mendiei buruzkoak, fauna naturalari eragin badiezaioke, eta, hala badagokio, Ingurumen Sailari buruzkoak.

Abereak larratzeko lurzatiaren kasuan, artzain elektrikoa izenekoa instalatu beharko da. Oinezkoentzat behar bezala seinaleztatu eta iragarria egon beharko da.

Berariaz debekatuta dago arantzadun alanbre itxiturak erabiltzea, bai eta, hala badagokio, pertsonentzat eta animalientzat zorrotzak edo arriskutsuak diren elementuak erabiltzea ere.

Bidearen eta finken artean desnibela dagoenean, ezpondak gehienez ere 45°-ko malda izango du.

Bideen erabileraren muga bereziak

12. artikulua. Ibilgailu astunen zirkulazioa debekatzea

1. Arau orokor gisa, udal titulartasuneko landa bideetatik ezin izango dute zirkulatu, aldeztu aurretik baimenik izan gabe, 15.000/10.000 kilogramotik gorako gehieneko pisua duten ibilgailuak, honako salbuespen hauekin:

a) Udal bideak erabiltzen dituzten industrietako ibilgailuek, bai eta haien bezeroek eta hornitzaileek ere, adierazitako pisua gainditu ahal izango dute, baldin eta industria jarduera bada.

b) ibilgailuak, zeinaren zama baita nekazaritzako finkak ongarrizko edo landa fruituak jasotzeko.

2. Udalerrri honetako landa bideetan aurreko apartatuan aipatutakoa baino pisu handiagoko ibilgailuekin zirkulatu ahal izateko, beharrezkoa izango da Guardiako Udalaren baimena izatea, dagozkion tasak ordaintzea eta, egon litezkeen kalte-galerei aurre egiteko, aldeztatik fidantza bat gordailuan uztea.

3. Baimen hori lortzeko, interesdunek eskaera aurkeztu beharko dute Udalaren Erregistro Orokorrean, eta zehaztasunez adierazi beharko dute zergatik ibiliko diren joan-etorrian, zein bide edo tartetatik zirkulatu nahi duten, zein egunetan bidaiatuko duten eta zenbat aldiz, eta ibilgailuek zer pisu eta matrikula duten.

4. Ez dute udal baimenik beharko, eta, beraz, abala ematetik eta Estatuko Administrazioari eta Arabako Foru Aldundiari tasak ordaintzetik salbuetsita geratuko dira, baldin eta materialak obra edo zerbitzu publikoak gauzatzetik badatoz, edo Guardiako Udalak eskatuta eginak badira.

5. Eskatu beharreko abalen zenbatekoa:

Artikulu honen lehenengo apartatuan adierazitakoa baino pisu handiagoa duten ibilgailuekin bidaiatzeko, salbu eta azalpen zatitik lehenengoan adierazitakoekin, aldeztatik eta udal honen alde zenbateko hauen banku abal bat gordailutu beharko da:

- Gehienez ere 10 bidaia: 601,01 euro.
- 10-20 bidaia: 1202,02 euro.
- 21-30 bidaia: 1803,04 euro.
- 31-40 bidaia: 2404,05 euro.
- 41-60 bidaia: 5.108,60 euro.
- 60 bidaia baino gehiago: 9.015,18 euro.

Baldin eta etengabe igaro behar badira urtean zehar, abal orokor bat gordailutuko da, eta haren zenbatekoa ezarriko da eskatzaileak Guardiako Udalarekin formalizatuko duen hitzarmen batean.

Bidearen erabilera berezia amaitu ondoren, horren berri emango zaio idatziz udalari, eta hark egiaztatuko du zein egoeratan dauden eragindako bideak. Emaizta ikusita, jarritako abala ezerezteari buruz dagokiona ebaziko da.

6. Bideen egiturak eta instalazioek jasan ditzaketen kalteak, haiek eragin dituztenek konponduko dituzte, eta, subsidiarioki, Udalak konponduko ditu.

Erabilera pribatiboa

Landa bideen erabilera pribatiboari dagokionez, azpiegiturak instalatzeko, hala nola ureztatzeko sareak, edateko ura, elektrizitatea, saneamendua edo komunikazioak, zerbitzu bakoitzari lan gelaxka bat esleituko zaio haiek antolatu ahal izateko.

Beraz, kontuan hartuta bidea herrigunean hasten dela modu erradialean, bidearen eskuineko ertzetik honako gelaxka hauek esleituko dira:

1. gelaxka. Edateko ura.
2. gelaxka. Komunikazioak.
3. gelaxka. Saneamendua.
4. gelaxka. Elektrizitatea.
5. gelaxka. Ureztatzeko hobiak.

Lurperatutako sareen baldintza orokorrak

Baimena ematen da lurperatutako sareetako instalazioetarako bide publikoak erabiltzeko, baldintza orokor hauekin:

1) Aldez aurretik, nahitaez eskatu beharreko udal lizentzia eskatu beharko da, eta bidea behar bezala lehengoratzeko bermatuko duen fidantza gisa ezartzen den zenbatekoa gordailutu beharko da. Bide hori obra amaitutakoan geratu beharko da, zanga ondo trinkotuta eta bide osoan zehar zabor legar trinkozko geruza batekin. Fidantza hori Udaleko zerbitzu teknikoek aldeko txostena eman ondoren itzuliko da, hura itzultzeko eskatzen den egunetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epean, obrak amaitu eta ikuskatu ondoren.

2) Baimen hau ematen da jabetza eskubidea alde batera utzi gabe eta hirugarrenei kalterik egin gabe, eta indarrean dauden xedapenen arabera beharrezkoak diren baimenak lortzeko betebeharretik salbuetsi gabe. Eskatzaileak lehendik dauden zortasunak gorde edo ordezkatzeko beharrezkoak diren obrak egin beharko ditu, eta hortik erator daitezkeen kalte-galerak ordaindu beharko ditu, dagokion moduan.

3) Baimenak ez du bere horretan ahalmenik ematen errepideen, bideen, zidorren, trenbideen, abelbideen eta abarren zortasun eremuetan obrak egiteko. Beraz, onuradunak baimena eskatu beharko die erakunde eskudunei, eta ezingo du aldaketarik egin aldeko ebazpena eman arte. Salbuespen bera aplikatuko da, aurreko edozein obra edo instalaziori eragiten badio, haren izaera edo erabilera edozein dela ere.

4) Baimena prekarioan ematen da, eta Udalak eskubidea izango du, egoki deritzonean, bere ondasunak okupatzearen ondoriozko kanona ezartzeko. Era berean, uneren batean Udalak instalazioaren trazadura aldatu nahi badu, eskatzaileak egokitzen den tokira aldatu beharko du, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe. Hodi edo sare horretako matxurek eragindako kalte guztiak eskatzailearen kontura izango dira.

5) Onuraduna (edo etorkizuneko jabeak, hala badagokio) obra honetarako ezarritako kontserbazioaren, mantentze lanen eta gainerako baldintzen arduraduna izango da.

6) Uneren batean, edozein arrazoirengatik sortutako edozein matxura gertatzen bada, dela instalazioaren akatsagatik, dela bideak berritzeko makinen lanagatik, eta abar, betiere eskatzaileak ordainduko ditu eragindako kalteak lehengoratzeko lanak.

7) Sarean hornidurarik ez badago, edozein arrazoirengatik, ezin izango diote Udalarik eskatu zerbitzua emateko, ezta inolako kalterik ere.

8) Hodia edo kanalizazioa lurperatuta geratuko da obra lizentzian zehaztuko den sakoneran, zer instalazio mota egingo den. Hala ere, edateko uraren hodiatarako 0,80 m-tik saneamendurako 1,20 m-ra bitartekoa izango da; sakonera hori aldatu egin ahal izango da zerbitzu teknikoek modu justifikatuan hala ezartzen dutenean.

9) Lurretik 40 cm-ra, polietilenoazko seinaleztapen zinta bat jarri beharko da, edateko uraren hodi bat, ureztatzeko ura edo linea elektrikoa dagoela adierazteko.

10) Udalak beretzat gordetzen du edateko uraren, saneamenduaren edo udal zerbitzuetarako edo linearako diren beste hodi batzuen hoditeria berriari lotzeko eskubidea, beharrezkoa denean.

11) Obrak eta instalazioak espedientean agertzen diren agiri eta planoetara egokituko dira, eta onuradunak seinale zehatz eta ikusgarriak jarri beharko ditu arriskurik eta txikienaz ohartarazteko, obrak egin bitartean.

12) Baldin eta hasiera batean onetsitako trazaduran, lurraren barne egoeraren ondorioz aldaketaren bat egin behar bada, aldez aurretik eskatu beharko da aldaketa hori, onets dadin.

13) Eskatzaileak obrak hasi baino hiru egun lehenago jakinarazi beharko die udal zerbitzu teknikoari hasi egingo direla, obren gauzatzea koordinatzeko eta beharrezkoak diren egiaztapen ikuskapenak ezartzeko. Zangak ezin izango dira bete kasuan kasuko zerbitzu teknikoek gainbegiratzeko ez badute, haiek egiaztatuko baitute obra bat datorrela espedientean adierazitakoarekin.

14) Zanga ez da 24 ordu baino gehiago egongo irekita, eta obraren eskatzaileak estali beharko du, ibilgailuak egoera onean igaro daitezzen.

15) Kutxatila edo sute ahoak jartzeko, bideetatik kanpo jarri beharko dira, eta alde aurretik udaleko zerbitzu teknikoei jakinaraziko zaie, kokapenari oniritzia eman diezaioten.

16) Azaldutako baldintza guztiez gain, nahitaez bete beharko dira obra lizentzian eskatzen diren guztiak.

17) Sustatzaileak gainerako zerbitzu sareen kokalekuaren berri izan beharko du, haietan interferentziarik edo kalterik egon ez dadin, eta sare berriak eta lehendik daudenak behar bezala bereizi beharko ditu, aplikatzekoa den araudi teknikoaren arabera eta langile kualifikatuen kontura.

Finketara eta eremu mugakideetara sartzeko pasabideak

Lurzatien jabeek eraikiko dituzte finketara sartzeko pasabideak. Haiek hartuko dituzte beren gain pasabideen kostuak eta gastuak.

Udalak eraiki behar baditu, haien kostua ondasun higiezinaren gaineko udal zergaren ordainagirian (OHZ – Kontribuzioa) zordunduta jasanaraziko du Udalak, lurzatien onuradun titular bakoitzari dagokion proportzioan.

Ezarritako pasabideen titularrak/onuradunak bere gain hartuko du sartzekoan eta irteterakoan hodiak garbi eta sastrakarik gabe mantentzeko eta kontserbatzeko betebeharra, eta lan horien kostua bere gain hartuko du.

Aurrekoa gorabehera, bidegurutzei eta/edo zidorrei dagozkien instalazioetako hodiak Udalaren edo, hala badagokio, Aldundiaren kontura izango dira, kasuan kasuko aurrekontu partiden kontura.

Areken eta lurzatien artean igarotzen diren zortasun pasabideek kontuan hartu beharko dute bide edo zidorren kategoriaren arabera legez ezarritako distantzia. Eta, batez ere, ibaien, erreken eta ureztarideen kasuan.

Finken titularrak ibaiak, errekek, ureztarideak eta beste elementu natural batzuk bereganatzen badituzte, hasierako egoerara ekarri beharko dituzte, eta horrek eragindako gastuak eta kostuak beren gain hartuko dituzte.

Era berean, elementu natural horietakoren bat hesiz ixten bada edo zortasun mota hori alde bakar batek usurpatzen badu, Ebroko Konfederazio Hidrografikoko zerbitzu teknikoei jakinaraziko zaie, ezarri beharreko erantzukizunak ezarri eta, hala badagokio, aplikatu beharreko zehapenak aplika ditzaten.

Ez da inola ere baimenik emango ordenantza honen 9. artikuluan ezarritako distantziak errespetatzen ez dituzten hormak, burdin hesiak edo bestelako eraikuntza elementuak eraikitzeko edo instalatzeko, eta inola ere ez bidearen mugan. Mota horretako instalazioak gutxienez 2,5 metro atzeratu behar dira finkaren kanpoko ertzetik barrurantz.

Ureztatze sareak

Ureztatzeko ura lotzeko sareak instalatzeko, landa bideen erabilera pribatiboa baimenduko da, zerbitzu teknikoek horniduraren bideragarritasuna justifikatzen duen aldeko txostena eman ondoren.

Baimena emateko, sare orokorretarako zerrendatutako baldintzak –aurreko apartatuan azaldu dira – eta kasuan kasuko obra lizentzian zehaztutakoak betetzeaz gain, baldintza berezi hauek ere bete beharko dira:

1) Hodia edo kanalizazioa lurperatuta geratuko da 1 m-ko sakoneran, zeina aldatu egin ahal izango baita zerbitzu teknikoek modu justifikatuan hala ezartzen badute.

2) Erabili beharreko hodiaren baldintza teknikoak zerbitzu teknikoek zehaztuko dituzte, eta, nolnahi ere, eremuan loturak egin ahal izango dira etorkizunean.

3) Kasuan kasuko zerbitzuak gainbegiratu beharko ditu lanak, eta obrak hasi baino gutxienez hiru egun lehenago jakinarazi beharko du. Zanga ezingo da estali aipatutako zerbitzuak instalazioa behar bezala egin dela egiaztatu arte.

4) Bidea ureztatzeko hodi baten bidez zeharkatzea eskatzen den kasuetan, sakonera arestian zehaztu den bera izango da, bai bidean instalatutako hodi batetik badator, bai lur partikular batetik badator.

Baldintza hori aldatu ahal izango da zerbitzu teknikoek hala erabakitzen dutenean.

Edateko urez hornitzeko sareak

Edateko ura lotzeko sareak instalatzeko, landa bideen erabilera pribatiboa baimenduko da, sareko baldintzek lotura ahalbidetzen dutela justifikatzen duen aldeko txostena eman ondoren zerbitzu teknikoek.

Baimena emateko, sare orokorretarako zerrendatutako baldintzak -aurreko apartatuan azaldu dira – eta kasuan kasuko obra lizentzian zehaztutakoak betetzeaz gain, baldintza berezi hauek ere bete beharko dira:

1) Hodia edo kanalizazioa lurperatuta geratuko da 0,80 m-ko sakoneran, zeina aldatu egin ahal izango baita zerbitzu teknikoek modu justifikatuan hala ezartzen badute.

2) Arabako Errioxako Urkidetzak gainbegiratu beharko ditu lanak, eta obrak hasi baino gutxienez hiru egun lehenago jakinarazi beharko du. Zanga ezingo da estali Arabako Errioxako Urkidetzak instalazioa behar bezala egin dela egiaztatu arte.

3) Erabili beharreko hodiaren baldintza teknikoak zerbitzu teknikoek zehaztuko dituzte, eta, nolnahi ere, eremuan loturak egin ahal izango dira etorkizunean. Horretarako, nahitaezko udal lizentzia eskatu beharko da.

4) Kontagailua ur hartunearen ondoan jarriko da, eta bidean geratuko da, hesietatik kanpo. Sarreran, atxikipen balbula eta ixteko giltza, eta, irteeran, ixteko giltza dituen armairu batean instalatuko da.

5) Bai sare orokorrari lotuta badago, bai lehendik dauden sareen adarkatzeak badaude, sare berriaren hasieran kontagailu bakar bat jarriko da eskatzailearen edo izendatzen denaren izenean, eta Udalak hari linea osoaren kontsumoari dagokion ordainagiria igorriko dio. Sarreran, atxikipen balbula eta ixteko giltza, eta, irteeran, ixteko giltza dituen armairu batean instalatuko da.

6) Eskatzaileari eskatu behar zaio instalazio berriak egin daitezela erabiltzaile berriak lotzeko behar diren ezaugarriak oinarri, eta ez dela berriz bidea altxatu behar.

Hornidura elektrikoko lurpeko sareak

Lurperatutako sare guztietarako eskatutako baldintza orokorrez gain, honako baldintza partikular hauek ere baimentzen dira:

Instalazioaren ezaugarriak

1) Instalazioaren ezaugarriek ahalbidetuko dute erabiltzaile berriak lotu ahal izatea etorkizunean, bidea berriz ere altxatu behar izan gabe.

2) Libre utzi beharko da 160 mm-ko diametroa duen hodi bat.

3) Behar bezala homologatutako kutxatila jarriko dira 50 metrotik 50 metrora. Bideetako makinen lana bermatzeko, kutxatila bidetik kanpo jarri beharko dira, eta behar bezala seinalizatuta, lurrean eta planoan.

4) Eskatzailea arduratuko da kutxatila hobetu, altxatu edo aldatzeaz, udalak hala eskatzen dionean, eta ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

5) Instalazioen jabeak ezin izango die kobratu sareetara lotzeko interesa dutenei hasierako kostuaren zati proportzionala gehi KPlaren igoera baino prezio handiagoa.

6) Teknikari eskudunak idatzitako dokumentazioa edo proiektua edo memoria aurkeztu beharko da.

7) Azaldutako baldintza guztiez gain, nahitaez bete beharko dira obra lizentzian eskatzen diren guztiak.

Hornidura elektrikoko aireko sareak

1. Nahitaezko udal lizentzia eskatu beharko da, eta bertan adierazten diren baldintza guztiak bete beharko dira.

2. Teknikari eskudunak idatzitako dokumentazio teknikoa edo proiektua edo memoria aurkeztu beharko da.

3. Azpiegituretarako behar diren zutoinak edo instalazioak bidearen ertzetik bi metrora, behintzat, atzeratuko dira.

13. artikulua. Arau hausteak

Ordenantza honetan jasotako arauen aurka doan ekintza edo ez-egite orok honako hauek ekar ditzake:

1. Erantzuleei zehapenak ezartzea, zehapen prozedura izapidetu ondoren.

2. Erantzuleztat jotakoek kalteak ordaindu beharko dituzte.

3. Hartu beharreko neurriak hartu beharko ditu Udalak arau haustearen ondorioz aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko.

4. Hurrengo artikuluan adierazitako arau hausteetatik edozein egiten duenak administrazio arloko erantzukizuna eragingo du.

14. artikulua. Arau hausteen sailkapena

Ordenantza honen aurkako arau hausteak astunak eta arinak dira.

1. Honako hauek arau hauste astunak dira:

- Bidea kaltetu edo hondatzea, baimendutako mugak gainditzen dituen pisuarekin zirkulaztearen ondorioz edo lanabes edo makinak arrastatztearen ondorioz.

- Bideko edozein obra edo instalazio edo haien edozein egitura elementu suntsitzea, aldatzea edo moldatzea.

- Bideko edozein elementu funtzional lapurtu, hondatu edo suntsitzea, edo haren ezaugarriak edo egoera nahita aldatzea.

- Arekaren edo lubetaren kanpoko ertzaren eta itxitura lerroaren, edo eraikinaren, artean, baimenduta ez dauden obra, instalazio edo esku hartzeak egitea, udal baimenik gabe, edo emandako baimenean jasotako baldintzen bat urratzea.

- Edozein motatako objektuak edo materialak jarri, jaurti edo uztea areketan, lubetetan edo egituraren euskarriek okupatutako lurretan eta bidearen plataformari eragiten diotenetan.

- Oztupoak jartzea edo bidean normal ibiltzea eragozten duen edozein ekintza egitea.

- Ura bere ibilgu naturaletik desbideratu eta bidera eramatea.

- Baimenik gabe luberritu edo landatzea.

- Urtebeteko epean arau hausle berdinak hiru arau hauste arin egitea.

- Edozein azpiegitura jartzea bideetan udalaren baimenik gabe.

- Bideak nekazaritzako makinekin inbaditzea, finketan nekazaritza lanak egiteko, eta horrek kalteak eragitea bidean.

2. Honako hauek arau hauste arinak dira:

- Bideak modu desegoki eta arduragabean erabiltzea, azkar hondatzea eraginez.
- Landa bideetan, edozein motatako ibilgailu motordunak orduko 40 kilometrotik gorako abiadura ibiltzea.
- Ura isurtzea bideetan, ureztatze lan desegokiagatik edo beste edozein arrazoiengatik.
- Edozein motatako ibilgailuak edo atoiak bidearen mugen barruan aparkatzea, bilketa garaian izan ezik, behar-beharrezkoa den denboran, eta, betiere, beste aukerarik ez badago eta beste ibilgailu batzuk igarotzea larriki oztopatzen ez bada.
- Bideetan kalteak edo galerak eragiten dituzten egite edo ez-egiteak, bideetatik igarotzea eragotzi gabe.

15. artikulua. Zehapenak

1. Aurreko artikuluan jasoriko arau hausteak zehatzeko, aintzat hartuko dira eragindako kalte eta galerak, hala badagokio; sortutako arriskua, eta eragilearen nahitasuna. Honako isun hauek aplikatuko dira:

- Arau hauste arinak: 150 eurotik 600 eurora arteko isuna.
- Arau hauste astunak: 600 eurotik 3000 euro arteko isuna.

2. Hala ere, hirigintza legerian eta/edo plangintzan jasotako aginduak urratzen dituzten arau-hausteen kasuan, zehapena araudi horretan xedatutakoaren arabera ezarriko da.

3. Baldin eta ordenantza hau hausteagatik instruitzen diren administrazio espedienteak direla-eta haiek irekitzea eragin zuen egitatearen beraren delitu zantzuak agertzen badira, alkateak Fiskaltzari jakinaraziko dio, arau hausleek izan ditzaketen erantzukizun penalak eskatzeko, eta udal administrazioak ez du zehapen prozedurarekin jarraituko harik eta agintaritzak judizialak epaia eman arte. Zehapen penalak baztertu egingo du administrazio zehapena ezartzea, hargatik eragotzi gabe arau haustea egin aurreko egoerara lehengoratzeko neurriak hartzea.

16. artikulua. Arduradunak

Ordenantzaren ondorioetarako, han jasoriko arau hausteen erantzule izango dira arau hausteak egiten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak.

Arau hauslea ez bada araua hausten harrapatzen, baina zantzu eta arrazoi frogatuak badaude zehatzeko bidean edo haren instalazioetan egindako kaltea finka jakin batean egindako lanek eragin dutela, lurzatiaren jabea edo errentari ezaguna izango da subjektu erantzulea.

Pertsona juridikoak zehatu egingo dira beren organoek edo agenteek egindako arau hausteengatik, eta beren gain hartuko dute beharrezkoak diren konponketa neurrien kostua; edonola ere, hirugarrenei eragindako kalte-galerengatik kalte-ordainak eman beharko dituzte.

Subjektu erantzule bat baino gehiago badago, eta ezin bada zehaztu zenbaterainoko parte hartu duten, erantzukizuna solidarioa izango da; edonola ere, erantzukizunei aurre egin dieten subjektuek errepikatzeko eskubidea izango dute gainerako parte-hartzaileen aurrean.

17. artikulua. Zehatzeko eskumena

1. Alkatea izango da ordenantza honetako xedapenak haustearen ondoriozko zehapen espedienteak hasteko eskuduna, ofizioz edo partikularrek edo haien agintaritzako agenteek salatu ondoren.

2. Zehapen prozedura izapidetzean, zehatzeko ahala gauzatzeko prozeduraren erregulamendua onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuak ezarritakoa beteko da.

3. Alkateak izango du zehapenak ezartzeko eskumena ordenantza honetan xedatutakoa hausteagatik.

18. artikulua. Preskripzioa

1. Arau hauste astunen preskripzio epea bi urtekoa izango da, eta arinena sei hilabetekoa, arau haustea egin zenetik zenbatzen hasita. Preskripzio epea arau haustea egin zen egunetik hasiko da zenbatzen, edo, hala badagokio, prozedura hasi behar zen egunetik, eta eten egingo da interesdunak zehapen prozeduraren berri duenean. Preskripzio epea berriz hasiko da zenbatzen zehapen espedientea hilabetetik gora geldirik badago erantzuleari egotz ezin dakiokkeen arrazoi bategatik.

2. Zehapen prozedura hasi behar dela ulertuko da baldin eta arau haustea eragin duten egitateak jakitea ahalbidetzen duten kanpoko zeinuak agertzen badira.

3. Jarduera jarraitu baten ondoriozko arau hausteetan, zenbaketaren hasierako data jarduera amaitu zenekoa izango da, edo arau haustea burutu den azken egintzarena.

4. Ordenantza honetan jasoriko arau hauste astunengatik ezarritako zehapenen preskripzio epea bi urtekoa izango da, eta arinena urtebetekoa, zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Zehapenen preskribatzea eten egingo da interesduna jakinaren gainean egonik betearazteko prozedurari ekiten zaionean, eta preskripzio epea berriro abiatuko da prozedura hori hilabetez baino luzeagoz egon bada etenda, baldin eta eten hori arau hausleari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik izan bada.

19. artikulua. Kalte eta galeren ordaina

1. Guardiako landa bideetan zein bertako edozein instalazio edo elementu funtzionaletan kalteak eragiten dituen orok kalte-ordaina eman beharko du; horrez gain, baliteke isunak ere ezartzea. Horretarako, zehapen prozeduraren ebazpenak honako hauek jaso ahal izango ditu:

- Arau hausleari eskatzea arau haustearen ondorioz aldatutako egoera lehengoratzeko.
- Eragindako kalte-galeren kalte-ordaina, haien zenbatekoa prozeduran zehaztu bada.

2. Zehapen prozedura izapidetzen ari den bitartean kalte-galeren ordaina finkatu ez bada, prozedura osagarri baten bidez zehaztuko da, eta haren ebazpena berehala betearaztekoa izango da.

Guardia, 2020ko urriaren 29a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO